

FORUKO KANTERAN LEGEZKANPOKO LEHERKETAK

Joan den Urriaren 24ean, astelehena, Foruko Urberuaga auzoko bizilagunek egoera benetan larri eta arriskutsua bizi izan dugu, auzoan bertan kokatuta dagoen harrobian izandako eztanda batzuen ondorioz.

Arratsaldeko seirak inguruan lehenengo eztanda bat izan zen harrobian. Lehen eztanda honetan aurrerago harrobiko bertako langileek jakinarazi zigutenagatik ezarritako kargen zati batek bakarrik egin zuen eztanda, karga guztiek leher egiteko dispositiboak akats bat izan zuen eta 20 kargetatik 4rek bakarrik egin zuten eztanda. Lehen eztanda honetan izugarrizko harri pila ikusi genuen harrobitik proiektatuta ateratzen zirela, atxikitzen ditugun argazkietan ikusi daitekeenez.

Arratsaldeko zortziak eta laurden zirenean bigarren eztanda bat izan zen, lehenengoa baino handiagoa. Kasu honetan ezin izan genuen ikusi harriarik ateratzen zen ia-ia gaututa zegoen eta, baina oraingoan sorpresa hobe eman zigun harrobiak, izan ere, eztanda eta segituan, polvora usaina zuen eta hauts pila zekarren olatu erraldoi bat etorri zen Urberoaga auzoaren gainera. Bapatean behe laino izugarri baten moduan, hautsezko laino baten azpian gelditu ginen. Gutxi gora behera ordu erdi tardatu zuen hautsak lurreratzen.

Eztanda entzunda harrobirako bidea hartu zuten bizilagun batzuek, azalpen eske, eta hauts olatuak bidean harrapatuta etxeetako etarteetan babestu behar izan zuten, eta inongo babeslekura iristeko astirik izan ez eta lurrian eztanda egon zenik ere bada arnasa hartu ezinik.



Hau ikusita harrobira bertaratu ginen Urberoagako bizilagunak.

Lehenik eta behin eztandaren ardura duen Guardia Zibilarekin hitz egin genuen eta haiek "ha habido un error grave" esan ziguten eta argibideak injinariari edo harrobiaren jabeari eskatzeko esan ziguten.

Injinariak berak ere errore bat egon zela esan zigun.

Eusko Jaurlaritzako Teknikari bat ere bazen bertan, Minas-etik etorria zela eta bere lana bibrazioak eta harri eta hautsaren proiektzioak kontrolatzea zela azaldu zigun, eta gure harridurarako berak ez zuela ez harrien proiektziorik eta

ezta hautsik ere ikusi esan zigun. !!!.

Momentu horretan tentsio handiko momentuak bizi izan ziren, teknikari honek bizilagunei "ignorante" eta "embusteros" ere esan zigulako.

Ertzantzarengana ere jo genuen une hartan auzoak zuen itxuraren atestatua jaso dezaten eskatzera, baina hori beraiei ez dagokiela eta ez ziren etorri.

Auzo honetan nekazaritza eta Abeltzantzatik bizi den bizilagunik bada eta belardiak, ortuak eta bestelako guztiak hauts kapa baten azpian daude oraindik ere. Gernikako Nekazaritza Ganbararen aurrean eta Urdaibaiko Patronatuaren aurrean ezarri dituzte auzotarrek salaketak.



Hautsaren ondorioz bi bizilagunek arnasa hartzeko arazoak izan zituzten baina ez ziren azkenean larrialdi zerbitzuetara joan.

Harrobian izandako kontrolik gabeko leherketen inguruan auzotarrek ateratako argazkiak:



